


Rs7. Zientzia eta Teknologiako Graduatuak

ISEI-IVEI 2005



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Argitaraldia: Ekaina 2005

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-Sistema Ebaluatua eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

KOORDINATZAILEA:

Paz Martínez

Jesús Grisaleña

DISEINUA:

Onoff Imagen y Comunicación / www.eonoff.com

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAN HIRUGARREN MAILAKO TITULAZIOA (CINE 5A, B ETA 6)* ERDIETSI DUTEN 20-29 URTE ARTEKO BIZTANLEEN TASA, ADIERAZITAKO URTEAN.

Batzordeak berak dioenez, Europako Batasunak goi-mailako irakaskuntzako tituludunetan defizita dauka, Japonia, AEB... bezalako herrien aldean. Batasunean, batez beste, 25 eta 64 adin-tarteko gizonezkoen %23 eta emakumezkoen %20 inguru goi-mailako tituludunak dira. Japoniaren kasuan, kopurua %36raino igotzen da gizonezkoen kasuan, eta %32raino emakumezkoenean. AEBrekin alderatuz gero, biztanleria horren %37 unibertsitateko tituludunak dira.

Zientzia eta Teknologia ikasketetan lizentziatu direnei dagokienez, EBko herrialdeen multzoan kopurua areagotzeko interes berezia dago. Kasu honetan, aipatutako bi herrialdeekiko konparazioa EBren aldekoa da. EBko goi-mailako tituludun guztien %25,7 Zientzia eta Teknologien espezialitatekoak dira, Japoniako %21,9 eta AEBen %17,2ren aldean.

Era berean, Europako Batasunak Zientzia eta Teknologia ikasketako lizentziatuen artean dagoen sexuen arteko desoreka konpentsatzea helburutzat hartu du. Halako ikasketak egitera jo eta amaitzen dituzten emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino nabarmen txikiagoa da.

2003. urtean, EB osatzen zuten 15 herrialdeen arteko batezbestekoa %13,1ekoa zen, baina sartutako 10 herrialdeen integrazioaren ondoren, zertxobait jaitsi da: %12,2ra. Hala ere, herrialdeen arteko aldeak (hala 15ena nola 25ena) oso handiak izan daitezke: Maltakoa %3,1ekoa da eta Irlandakoa, berriz, 24,2koa, tartean Alemaniako 8,4, Espainiako 12,6 eta Frantziako 22,2 daudela eta Irlandakoa, berriz, 24,2koa, tartean Alemaniako 8,4, Espainiako 12,6 eta Frantziako 22,2 daudela.

EAEri dagokionez, 1992-2003 aldian antzeman da adierazle honen bilakaera iraunkor eta erregulariki positiboa gertatu dela; izan ere, Zientzia eta Teknologia graduatuen tasa %5,9koa zen 1992an eta %28,4koa, berriz, 2003an (**). Azken portzentaje hori EBko herrialde guztietako altuena da, segur aski EAEn Lanbide Heziketa Teknologikoak (CINE 5B) kopuruz garrantzi handia duelako.

Sexuak bereiz hartzea oso argigarria gertatzen da. 2003. urtean, Zientzia eta Teknologia emakumeen graduazio-tasa %16koa zen, gizonena baino 24 puntu beherago (%40). Horrek adierazten duenez, adierazlea oso ona izanagatik, sexuen arteko distantziak agerian uzten du Zientzia eta Teknologia arloetan emakumeen graduazioa bultzatu behar dela.

(*) CINE 5A maila unibertsitate-graduatuak, 5B goi-mailako Heziketa Zikloak eta 6 doktoreei dagokie.

(**) Eustaten Euskadiri buruzko datuak, Eurostaten irizpide berdinekin kalkulatuak.


RS7.1. TAULA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAN HIRUGARREN MAILAKO TITULAZIOA (CINE 5A, B ETA 6)* ERDIETSI DUTEN 20-29 URTE ARTEKO BIZTANLEEN TASA (PERTSONAK MILA BIZTANLEKO). GUZTIZKOAK ETA SEXUAREN ARABERA BEREZITA. EAEN.

IKASTAROA	Graduatuen guztizko kop.	20-29 urteko biztanleria	Guztira	TASA MILAKO	
				Emakumeak	Gizonak
1991/92	2.118	358.722	5,9	3,6	8,1
1992/93	2.064	358.762	5,8	3,2	8,2
1993/94	2.185	357.232	6,1	3,3	8,8
1994/95	3.002	356.288	8,4	3,9	12,8
1995/96	3.768	351.728	10,7	5,0	16,2
1996/97	4.453	352.154	12,6	6,4	18,6
1997/98	6.349	350.143	18,1	9,4	26,5
1998/99	5.830	344.980	16,9	9,4	24,0
1999/00	6.871	339.699	20,2	10,9	29,1
2000/01	7.921	333.405	23,8	13,3	33,7
2001/02	7.980	324.688	24,6	13,3	35,3
2002/03	8.779	310.226	28,3	16,0	40,0

RS7.1. GRAFIKOA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAN HIRUGARREN MAILAKO TITULAZIOA (CINE 5A, B ETA 6)* ERDIETSI DUTEN 20-29 URTE ARTEKO BIZTANLEEN TASA (PERTSONAK MILA BIZTANLEKO). GUZTIZKOAK ETA SEXUAREN ARABERA BEREZITA. EAEN.



Oharra: 1996/97 urtetik 2002/03ra doktoretza-tesiak sartu dira, baina EHUkoak soilik.

2002/03 ikasturtean izan ezik (bertan, biztanleria-proiekzioak erabili dira), gainontzeko ikasturteetan biztanleria eguneratua baliatu da. Horregatik igotzen da tasa hainbeste azken urtean.

Iturria: EUSTAT.

RS7.2. TAULA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAN HIRUGARREN MAILAKO TITULAZIOA (CINE 5A, B ETA 6)*
 ERDIETSI DUTEN 20-29 URTE ARTEKO BIZTANLEEN TASA (PERTSONAK MILA BIZTANLEKO)
 2000-2003KO ALDIAN EBN.


	2000	2001	2002	2003
EB (15 estatuak)	11,0	11,9	12,3	13,1
EB (25 estatuak)	10,2	11,0	11,4	12,2
Alemania	8,2	8,0	8,1	8,4
Austria	7,2	7,3	7,9	8,2
Belgika	9,7	10,1	10,5	11,0
Danimarka	11,7	12,2	11,7	12,5
Erresuma Batua	16,2	19,5	19,5	21,0
Eslovakiar Errep.	5,3	7,5	7,8	8,3
Eslovenia	8,9	8,2	9,5	8,7
Espainia	9,9	11,3	12,0	12,6
Estonia	7,0	7,3	6,6	8,8
Euskadi (t)	20,2	23,8	24,6	28,3
Finlandia	16,0	17,2	17,4	—
Frantzia	19,6	20,2	—	22,2
Herbehereak	5,8	6,1	6,6	7,3
Hungaria	4,5	3,7	4,8	4,8
Irlanda	24,2	22,9	20,5	24,2
Italia	5,7	6,1	7,4	—
Letonia	7,4	7,6	8,1	8,6
Lituania	13,5	14,8	14,6	16,3
Luxenburgo	1,8	—	—	—
Malta	3,4	2,7	3,1	3,1
Polonia	6,6	7,6	8,3	9,0
Portugal	6,3	6,6	7,4	8,2
Suedia	11,6	12,4	13,3	13,9
Txekiar Errep.	5,5	5,6	6,0	6,4
Zipre	3,4	3,7	3,8	3,6

Iturria: Eurostat. Euskadiri buruz EUSTATEk.

(1) EUSTATEk kalkulatuta.

RS7.2. GRAFIKOA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAN HIRUGARREN MAILAKO TITULAZIOA (CINE 5A, B ETA 6)*
ERDIETSI DUTEN 20-29 URTE ARTEKO BIZTANLEEN TASA (PERTSONAK MILA BIZTANLEKO)
2000-2003KO ALDIAN. EBN.



Iturria: Eurostat. Euskadiri buruz EUSTATEk.